

## SAINT-JOHN PERSE, NOBEL SARIA

Ona emen, iñor izan ba'da, olerkari ixilla, gorotzaren ixilka bere buruaz jokatu ta Nobel saria irabazi dauena. Bizitz-legeari egokiozan zeregiñak ez eutsoen itxer bere irudimen arrigarririk urtenik joiazanez bere bostso ta olerki ederrak adi-erazten, bere olerkari-doiak ezagun emoten. Oso latz eta zikoitza izan da bere buruaz, mundu ta bertako erregea gogo bizi ta jorabestu arren, abesti orreik ez eutsozan iñori erakutsika-eziñeko legez bere mende jarri ta euki bai ebazten. Entzun Alain Bosquet'en itzak: «Saint-John Perse'k ez dau bere idatzietan iñun be beretaz itz egiten bere nortasuna ez dakar iñun be ezer baieztuteko. Itxer lauez be ez dau sekula ezer idatzi; urrindik edo urretatik, bere olerkia txit bestelakoa bere bizitzaz. Ez arpegi, ez une, ez toki: eredu-lana izan daiteke izerbagea».

Alain'en itzok argi diñoskue zergaitik ez eban nastu Perse'k bere diplomatzi ta politika karrera, otsalurtarra, bere barnetiko kezka ta artegatasunekaz. Mezuko Idazkari Pekin'en 1921'ra; politiku trebe ta zurra Sortalde Garaiko Arazoetan Washington'go Latetide Briand'en Jaurlaritzako diplomatikuen nagusi 1925'tik 1931'ra; Mezulari 1933'garrenean eta bere aberriko At-azarotako Idazkari orokorra zazpi urtez: kargu ta arazo batzuk dira, nunbait, olerti-sailletik baztertuta eukiteko. Baiña, itxuraz bakarrik baztertua, ondarrean bada bere olerkirako dei zangarra, bere anitz gauza ezagutu-isi ta egarri biziak, askotariko lurraldeak ikertzera eroan eban, toki askotatik ibiltzen, Txina, Korea, Japon, Mongolia ta Erdiko Asiatzear; bai ta gogartzera be toitoista eleiza txiki ta itxi batera, edo *Anabasis* sortzera, Gobi eremura egindako txangotik biurtzean.

Xeetasun oneik dira antza eskubide osoz merezi eban izen ta ospe aundira eroan ebenak: bere lana munduko edertasunakaitik naibaitzen eban maitasun jasankor ta griñatsu baten igali da noski, lurriztigana nako seta mugabagea, sortzetiko jakinkizun, edesti, lutelesti —oneik bai zitun bere goi-argizko iturrik bein eta egitienak. Diñoenez, Perse dogu munduko dirdaien kantari, ta ortik atara da —gauza dirdaitsuak artzen ditulako— bere baikortasuna. Egia esan, begirale dogu, baiña bere ikustokia izten dau, bizitzaren gailentzea ta geroko —gogai soilla bere olerkian— obeari abestean.